


**EUSKAL AEKO INDUSTRIA PRODUKZIOAREN INDIZEA (IPI) 2014ko maiatza)**

## Euskal AEko industria-jarduera % 1,2 handitu da 2014ko maiatzean

**Aurreko hilabetearen aldean, Euskal AEko industria-produkzioaren indizea % 0,3 jaitsi da**

2014ko maiatzean, Euskal AEko industri produkzioa % 1,2 handitu da, 2013ko hilabete beraren aldean, lan-egutegiaren termino homogeneotan, Eustaten datuen arabera. Aurreko hilabetearen aldean, 2013ko ekainaren aldean hain zuzen, Euskal Autonomia Erkidegoko industria-ekoizpena % 0,3 jaitsi zen, urtaroko eraginak zuzenduta.



Industria-talde handiei dagokienez, 2014ko maiatzeko indizeak 2013ko maiatzaren aldean izan duen bilakaera gorabeheratsua izan da. *Kontsumo-ondasunak*, oro har, % 6,1 handitu ziren, *Kontsumo Ondasun Galkorrek* izandako % 15,9ko igoeraren eraginez, zeren *Kontsumo Ondasun Iraunkorrek* % 16,1 egin baitzuten behera. *Bitarteko Ondasunek* % 4,7 egin zuten gora, eta *Ekipamendu Ondasunek*, berriz, % 4,3 behera. *Energiak*, azkenik, % 4,4, egin zuen behera.

Hilabete arteko aldakuntza ere, 2014ko maiatzekoa 2014ko apirilarekiko, gorabeheratsua izan da, industria-talde handietan. *Energiak* % 0,8 egin zuen gora, *Kontsumo Ondasunek* % 2,9 gora (*Kontsumo Ondasun Galkorrek* % 5 gora eta

*Iraunkorrek* % 3,0 behera egin baitzuten), *Ekipamendu Ondasunek* % 3,4 behera egin zuten eta, amaitzeko, *Bitarteko Ondasunek* ez zuten aldaketarik pairatu.

Euskal industriako sektore handietan, 2014ko maiatzean *Elikagaiak*, *edariak* eta *tabakoa* atalekoek eta *Zura*, *papera* eta *arte grafikoak* atalekoek izan zuten igoera handiena, % 16,6 eta % 12,6, hurrenez hurren.

### 1. taula. Euskal AEko Industria Produkzioaren Indizea Sektore nagusiak. Urte arteko aldakuntza-tasak. A-38 sektorizazioa. Behin-behineko datuak

|                                                    | m / m-12 |
|----------------------------------------------------|----------|
| <b>A38 SEKTORIZAZIOA</b>                           |          |
| <b>SEKTORE NAGUSIAK<sup>(1)</sup></b>              |          |
| 10 - Metalurgia eta produktu metalikoak            | 1,5      |
| 16 - Energia elektrikoa, gasa eta lurrina          | -7,4     |
| 09 - Kautxua eta plastikoak                        | 2,7      |
| 13 - Makineria eta tresneria                       | 0,2      |
| 14 - Garraio-materiala                             | -4,7     |
| 03 - Elikaduraren, edarien eta tabakoen industriak | 16,6     |
| 12 - Material eta tresneria elektrikoa             | -8,0     |
| 05 - Zurgintza, papera eta arte grafikoak          | 12,6     |

Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

(1) Industrian pisurik handiena duten sektoreak

#### Iturria: Eustat. Euskal AEko Industria Produkzioaren Indizea

Beste muturrean, jaitsiera handienak *Argindarreko materiala* eta *ekipamendua* atalak eta *Argindarra*, *gasa* eta *lurrina* atalak izan zituzten, % 8,0 eta % 7,4koak, hurrenez hurren.

Lurraldeari dagokionez, Industriako Produkzioaren Indizearen maiatzeko urtez urteko bilakaera goranzkoa izan da hiru lurralde historikoetan: Bizkaian % 2,1, Araban % 0,7 eta Gipuzkoan % 0,6. Hilabete arteko aldakuntzaren tasari dagokionez, 2014ko apirilaren aldean, Bizkaian positiboa izan da (% 2,6); Araban eta Gipuzkoan, berriz, negatiboa % 2,6 eta % 1,9 jaitsi baita hurrenez hurren.

**2. taula. Euskal AEko Industria Produkzioaren Indizea. Aldakuntza-tasak. 2014 maiatza. Behin-behineko datuak**

|                                                           | Egutegiaren eragina zuzendutako datuak |                        | Datu desestazionalizatuak |                 |
|-----------------------------------------------------------|----------------------------------------|------------------------|---------------------------|-----------------|
|                                                           | Mai2014/Mai2013                        | M(Mai2014)/M(Mai2013)* | Mai2014/Api2014           | Api2014/Mai2014 |
| <b>Indize orokorra</b>                                    |                                        |                        |                           |                 |
| <b>Euskal AE</b>                                          | <b>1,2</b>                             | <b>0,5</b>             | <b>-0,3</b>               | <b>0,2</b>      |
| Araba/Álava                                               | 0,7                                    | 2,7                    | -2,6                      | 1,3             |
| Bizkaia                                                   | 2,1                                    | -1,4                   | 2,6                       | -1,3            |
| Gipuzkoa                                                  | 0,6                                    | 1,4                    | -1,9                      | 1,0             |
| <b>ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK</b> |                                        |                        |                           |                 |
| Kontsumo-ondasunak                                        | 6,1                                    | -3,1                   | 2,9                       | 3,2             |
| -Kontsumo-ondasun iraunkorrak                             | -16,1                                  | -18,6                  | -3,0                      | 3,6             |
| -Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak                          | 15,9                                   | 3,5                    | 5,0                       | 3,1             |
| Ekipo-ondasunak                                           | -4,3                                   | 0,2                    | -3,4                      | -1,4            |
| Bitarteko ondasunak                                       | 4,7                                    | 3,4                    | 0,0                       | -1,3            |
| Energia                                                   | -4,4                                   | -5,1                   | 0,8                       | 1,4             |

(\*) 2014ko urtarriletik oraingo hilera arte metatutako urte arteko aldaketa-tasa, 2013ko aldi beraren aldean

**Iturria: Eustat. Euskal AEko industria produkzioaren indizea**

**Informazio gehiago:**

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: [servicioprensa@eustat.es](mailto:servicioprensa@eustat.es) Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEko Industria Produkzioaren Indizeari (IPI) buruzko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko Industria Produkzioaren Indizeari (IPI) buruzko datu-bankua